



Genetikoki aldaturiko Organismoen eremu libreak: Eskabidea Europar Batzordeari

Europar Batasun osoan milaka eta milaka tokiko eta herrialdeko gobernu agintarik baztertu nahi dute euren lurraldean genetikoki aldaturiko (GM/GA) hazkuntzen hedapena. Ekimen hau burutzeko arrazoiek barnean hartzen dituzte:

- GM/GA elikagaiak epe luzera izango duten segurtasunari buruzko zalantza zientifikoek eta GM/GA hazkuntzek ingurumenean izango dituzten ondorioek sorturiko ardurak;
- Hazkuntza tradizional, konbentzional eta ekologikoak kutsatu gabe GM/GA hazkuntzak landatzeko dauden zailtasun nabariak eta horrek nekazaritzako elikagaien sektorean izango dituen ondorio ekonomikoak;
- Herritarrak egiten ari diren eskaerak OGM/GAOrik gabeko elikagaiak eta tokian tokiko inguruneak edukitzeko.

Batasuneko gaurko legeek ez dute lortzen tokiko eta herrialdeko gobernu agintari horiek babestea. Eta, nazioarte mailan, gero eta presio handiagoa dago GM/GA hazkuntzak Europar Batasunean sartzea derrigortzeko, batez ere Merkataritzako Mundu Erakundearen Estatu Batuek bultzatzen duten merkataritza eztabaidaren bidez

GUK, behean sinatzen dugun erakundeek, uste dugu tokiko gure ekonomia, kultura eta ingurumena, eta gure herritarren osasuna babesteko, Europar Batasuneko legeriak bere baitan hartu behar duela GM/GA hazkuntzak euren eremuetan hazi behar diren ala ez erabakitzeko eskubide demokratikoa tokiko eta herrialdeko gobernuari dagokiela.

GUK, era berean, uste dugu genetikoki aldaturiko organismoen hazkuntza erkidego mailan ez litzatekeela onartu behar arazo horiek argitu arte eta hazi konbentzional eta ekologikoetan edozein motatako OGM/GAO dagoela adierazten duen etiketatze araupeketa zehatzak egon beharko lirakekeela.

Udal honek adierazten du genetikoki aldaturiko aldakiak bere lurraldean haztearen kontra dagoela eta “eremu librea” izatea bermatzen saiatuko dela

.....
(Tokiko edo herrialdeko agintariaren izena)

Sinaturik:

.....
(Izena eta kargua adierazi)

Erakundearen zigilua: